

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketaren Atala

Hasierako onespena ematea Berpizkundearen Plazaren azpiko 1. zenbakiko espazio publikoaren azpian udalak jabetzan duen aparkalekuaren kalifikazio juridikoaren aldaketa partzialari

Gasteizko Udala I-4427 zenbakiarekin inbentariatuta dagoen aparkalekuaren jabea da, zeinak jabari publikoko eta zerbitzu publikoko ondasunen izaera juridikoa baitu.

Aparkaleku hori udal jabetzako bi finken azpian eraikita dago:

– 28.524 zenbakiko finka, Gasteizko 5 zenbakiko Jabetza Erregistroan inskribatutakoa (4516. liburukia, 768. liburua, 173. orrialdea), 1. zenbakiko espazio librearen erabilera duena, Berpizkundearen plazan; katastro-erreferentzia: 59-1711-1077-1-1-1.

– 28.523 zenbakiko finka, Gasteizko 5 zenbakiko Jabetza Erregistroan inskribatutakoa (4516. liburukia, 768. liburua, 168. orrialdea), komunitate-ekipamendu generikorako xedea duena, gaur egungo zezen-plaza; katastro-erreferentzia: 59-1431-1078-1-1-1.

Egiteke daude obra berriaren aitortpena eta aparkalekua unitate gisa Jabetzaren Erregistroan inskribatzea.

Udalbatzak 2013ko azaroaren 29ko osoko bilkuran onetsi zuen behin betiko 3. zenbakiko (zezen-plaza) Gasteizko Barne Berrikuntzarako Plan Bereziaren hirugarren aldaketa puntuala, espazio libre publikoaren azpian aparkaleku pribatua arautu eta lurpean dauden aparkaleku publikoen salmenta ahalbidetzeko asmoz.

Aldakuntzaren bidez 1. zenbakiko espazio librerako udal jabetzako finkari kalifikazio gainjarria edo kalifikazio bikoitza eman zitzaion: lurzoruari, espazio publikoarena, eta lurpeari, aparkaleku pribatuarena.

Aldakuntzaren beharra eta egokiera honela justifikatu zen: “lur azpia egungo gizarte beharren errealitatera egokituagoa den moduan erabili eta kudeatzeko sistema arinagoak dituzten mekanismoak aurkitzeko beharrak justifikatu egiten du proposatutako aldakuntza puntuala, eta orobat udalaren ondasunen kudeaketa eraginkortasun, ekonomia eta errentagarritasun printzipioei erantzuten dieten mekanismoak izateak”.

2014ko urtarrilaren 3ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen horren berri; 2014ko martxoaren 5ean, bestetik, horrekin lotutako hutsen zuzenketa argitaratu zen. Horrenbestez, ahalbidetu zen 1. zenbakiko espazio publikoa osatzen duen lursailaren azpian eraikitako aparkalekuaren zatiaren kalifikazio juridikoa aldatzea, koordinatu horietan dauden aparkalekuak aparkaleku pribatu gisa erabili ahal izateko, “jabari eta erabilera publikoa duten espazio libreen erabilerak dituen onuretako bat bera ere galdu gabe, sestraren gaineko lursail osoak erabilera hori izaten jarraitzen baitu”.

Jabari-desafektazioa eskatzeko (1. zenbakiko espazio librearen koordinatuen azpian dagoen I-4427 zenbakiko aparkaleku-plazen kalifikazio juridikoa aldatzearen bidez), horiek pribatutzat jo zitezten dosierra izapidetu zen.

Dosierrari delako ondasunaren Inbentarioko Egiatagiria gehitu zitzaion, bai eta proposamenaren aplikatzekoa den legeriaren, eskumenaren eta egokitasunaren gaineko legelari nagusi buruaren txostena, betiere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua) arabera.

2014ko azaroaren 5ean, Ogasun Batzordeak eta Kontuetaarako Bereziak aldeko irizpena eman zion Berpizkundearen plazaren 1. zenbakiko espazio libre publikoaren azpiko udal jabetzako aparkalekuaren kalifikazio juridikoaren aldaketa partzialari hasierako onespina emateari, Udalbatzak onetsi zezan.

2014ko abenduaren 1ean, Ogasun Sailari itzuli zitzaion dosierra, Udalbatzara eraman gabe, eta dosierrarekin batera, Aholkularitza Juridikoak Udalbatzaren idazkariari desfektazio-dosierraren gaineko eskumenari buruz igorritako txosten bat; horren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari zegokion desfektazioari buruzko irizpena ematea baldin eta ondasuna besterentzekoa bada.

Eskumenari buruzko txosten horretako irizpidea (Gobernu Batzarra) bat ez zetorrenez dosierraren zegoenaren irizpidearekin (Udalbatza), eta dosierra izapidetzea etenenez, Idazkaritza Nagusiak hala aginduta, dosierra itzuli zen, Tokiko Gobernu Batzarrari helaraz zekion eta horrek irizpena eman zezan.

Hala, 2016ko irailaren 30ean, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespina eman zion 1. zenbakiko Espazio Librea (erregistroko 28.524 zenbakiko finka) mugatzen duten koordinatuen azpian dauden I-4427ko aparkaleku-plazaren kalifikazio juridikoari aldatzeki.

Urte bereko abenduaren 23an, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zuen udal jabari publikotik behin betiko desfektatutako ondare-ondasun gisa sartzeko udal ondarean, eta agindu zuen zegokion aldaketa egitea udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorreko erreferentzian, adierazteko ukitutako plazaren ondare-izaera obra berriaren adierazpenaren eskrituran azkenean geratzen den deskribapenarekin; hura izapidetzen ari zen garai hartan.

Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean aldaketa egin ondoren, obra berriaren adierazpenaren eskriturarekin jarraitu zen, horren bidez alta berezia eman ahal izateko udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean aparkaleku-plaza bakoitzari, ondasunekoa edo jabarikoa (desfektatu gabeko espazioaren azpikoak) den adierazita, kasuan kasukoa.

2017ko azaroan, Ogasun Sailean jakin zuten Gasteizko 5 zenbakiko jabetza-erregistratzailearen iritziz Udalbatzak hartu behar zuen desfektaziorako erabakia, izan ere "Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen izaera orokorrean jasotzen diren xedapenek eraendu behar dute, 22.2 L artikulua, irizpide historikoari jarraituz, Udalbatzaren eskumentzat jotzen baitu, ez batzordearena, jabari publikoko ondasunen aldaketa juridikoa"; horrenbestez, ez zuen egin eskatu zitzaion obra berriaren adierazpenaren inskripzioa.

Inguruabar horren berri jasota, Udal Aholkularitza Juridikoaren txostena eskatu zen; eta horrek, 2018ko azaroaren 27an ondorioztatu zuen "biztanleria handiko udalerrietan, Udalbatza da jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa erabakitzeako organo eskuduna, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2 artikulua .l) apartatuaren eta 19.3 artikulua arabera".

Udal Aholkularitza Juridikoaren txosten berria erantsi zitzaion dosierrari, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/95 Legearen (abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua) 129.1a artikuluan ezarritakoari zein aurretik jardundakoari jarraituz.

Hori guztia kontuan izanik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 39. artikuluaekin bat etorritik, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkari honek, Ogasun Batzorde eta Kontuetaarako Bereziak irizpena eman ondoren, honako proposamen hau egiten dio Gasteizko Udalbatzari:

Lehena: I-4427 zenbakiko aparkalekuan, 1. zenbakiko espazio librea (erregistroko 28.524 zenbakiko finka) mugatzen duten koordinatuen azpian dauden aparkalekuen kalifikazio juridikoaren aldakuntzari hasierako onespina ematea.

Bigarrena: Erabakia jendaurrean jartzea, hilabetez, egokitzat jotzen diren alegazioak aurkezterik izan dadin.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko otsailaren 28an

Ogasun Saileko zinegotzia

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO